# 10. Iruña-Veleia: Azken urteko albisteak, Epailearen autoa eta bertsio ofizialaren historiaren laburpena

***Euskeraren Jatorria***

## 10.1. Azken urteko albisteak: 2016 osoa eta 2017 maiatza arte

Urtarrilean abenduko suntsiketaren berri zabaldu genuen: *Gure Aita t*opatu zen etxearen azken arrastoak suntsitu omen dituzte

(2. suntsiketa)





Ertzaintzaren txostenak dio Eliseo diruarekin geratu zela eta diru hori zerga bat zen eta Ogasunean sartuta zuen


RDÁN, en base a estos falsos análisis, elaboró
n SL. A consecuencia de ello, Rubén CERDÁN ob
beneficio por parte de Lurmen SL de, al meno
las facturas, sin descartarse que pudiera exi
de la subvención de la DFA entre Rubén CERDÁ

Maiatzean 2. Nazioarteko Biltzarra arrakasta handia: 600 lagun guztira: 100 biltzarrean, beste 100 Donostia eta Langraizeko hitzaldietan eta 300 erakusketa ikusten Donostian eta Langraizeko liburutegian, eskolan eta institutuan. SOS, Martin Ttipia eta Lurmenekin batera antolatu genuen.



Karlos Uragaren Erakusketa




Epaitegiak SOSen 2. kereila tramitera onartu du nahiz eta hilabete batzuen ondoren ezeztatu




Ekainean Alkolohemia-gatik Nuñez Unibertsitatetik eta Iruña-Veleiatik kendu dute (aldi baterako).

Ekainean: Euskeraren Jatorria Elkartea Arabako Batzar Nagusietako alderdi guztiekin egon zen eta denak (Podemoseko 4 ezik) indusketa suntsitu duena eta gezurrak esaten dituena jarraitzearen alde daude: EHUko Arkeologia Saila


Las excavaciones en Iruña-Veleia permiten hallar un convento del siglo XI,



Ekainean Epaitegiak 7 urte pasatu badira ere, instrukzioa luzatu die Eliseori eta Oskarri.



Pariseko Unibertsitate batek Hectorren txostena argitaratu du




Berriak erreportaje handia eta garrantzitsuena "ahaztu": datazioak, Edward Harrisek esandakoak…

Udan SOS Iruña-Veleiak antolatzen dituen bisita gidatu alternatiboek arrakasta handia: 600 lagun bi urtetan



Katilu berriak, latinezko esaldiekin



Agustin Azkaratek (EHU-Arkeologia), unibertsitatetik kanpoko kontrauen diruaren %73 jasotzen du






EHUko kontratuak kanpoko enpresekin, 2007tik 2011ra

| Arkeologia lanak | | | Bestelako lan motak |
|---|---|---|---|
| Agustin Azkarate | Jose Manuel Valle Melon* | Juan Manuel Madariaga | |
| 6000,00 | 7.322,38 | 15.383 | 20.879,95 |
| 18.000 | 23.699,20 | | 15.000 |
| 160.000 | 20.211,56 | | 15.000 |
| 7.411,31 | 15.099,85 | | 11.950 |
| 105.128,40 | 8.336,03 | | 66.024 |
| 25.536,03 | 10.966,17 | | 18.500 |
| 5.000 | 12.387,8 | | 26.000 |
| 7.161,51 | | | 9.083,20 |
| 250.418,56 | | | 20.180,40 |
| 210.178,60 | *Lan bakarra | | 50.668,80 |
| 24.725,73 | EAEn eginda. | | 20.000 |
| 10.744,83 | Gainerakoak | | 21.542 |
| 8.583,62 | Errioxan | | 7.500 |
| 139.197,53 | | | 13.903 |
| 280.500 | | | 17.574 |
| 172.219,40 | | | 17.342 |
| 28.605,04 | | | 25.522 |
| 17.676,40 | | | 8.729,41 |
| 91.855,40 | | | 6.800 |
| 245.551,61 | | | 12.880 |
| | | | 14.000 |
| | | | 49.788,24 |
| | | | 4.500 |
| | | | 98.517,65 |
| **1.814.493,97** | 98.022,99 | **15.383** | **571.884,65** |

Azaroan Kristautasunari buruzko jardunaldia




Astero, SOS Iruña-Veleiak Aldundiaren aurrean egiten dituen enkarteladak, 2015eko urtarriletik egon dira urte osoan







Goirizelaia badoa. Berarekin egon ginen eta ez zuen ezer konpondu nahi izan



2017an sartzen gara

Iruña-Veleia ere preso dute




Otsailean bi biltzarretako liburua eta erakusketa aurkeztu genuen






Euskadi Irratiak erreportajea egin eta 4tik 2 liburu zentsuratu: Hector Iglesiasena eta Euskeraren Jatorriarena



## 10.2. Epaitegiaren autori emandako erantzuna

**Iruña-Veleiaren, eta hark ordezkatzen duen euskera zaharraren eta aurrekristautasunaren aurkako eraso judiziala maila gorenera heldu da**

Euskeraren Jatorria Elkarteak, Gasteizko Instrukzioko 1. Epaitegiak emandako autoaren aurrean, honako adierazpenak egin nahi ditu:

1. Epaitegi honek ez du gai honetan inolako zilegitasunik, 2010ean EHUko Arkeologia Sailak indusketara sartu berria zenean hondeamakina batez izugarrizko triskantza egin ondoren SOS Iruña-Veleiak aurkeztutako kereila astebeteko epean artxibatu zuelako. **Ez zuten aztertu nahi izan egindako triskantza**: EHUkoek pala harlauzetaraino sartu zuten eta goiko guztia eraitsi eta apurtu zuten (etxeetako egituren arrastoak…), bideoan ikus daitekeen moduan.
2. Epaitegi honetako Susana Junquera Bajok erabaki hori hartu du **grafitoen datazioak egin gabe.** Datazioak pieza askotan egin daitezke: idatzitako adreiluetan edo marrazkiak dituzten buztinezko taulatxoetan termoluminiszentziak egin daiteke, kez betetako marrazkietan ke hori zein mendetakoa den jakin daiteke, letrak karbonato kaltzikoz estalita dituzten grafitoetan karbonatoak zenbat urte daramatzan hor jakin daiteke, etab. Baina ez dira egin nahi izan. Munduko arkeologo gehienek laborategi gutxitara bidaltzen dituzten piezak baina horietara, nahita, ez dituzte bidali nahi izan.
3. Faltsuak direla esateko IPCE-Instituto de Patrimonio Cultural de Españak egindako grafitoen **azaletako analitiketan** oinarritu dira baina Ministerio de Culturako laborategi horrek frogatu duen gauza bakarra da azaletan metal modernoak daudela, **ez karbonato, ke edo sedimentuen azpian, gainean baizik.** Hau da, IPCEk grafitoak gaur egungo eskuilekin garbitu direla frogatu digu!! Ez testuak eginberriak direla. Noski, Eliseori bestelako laborategi batean egitea debekatu egin diote.
4. Susana Junquerak ez omen daki munduko faltsifikatzaile guztiek **espero dena faltsifikatzen dutela**. Nola faltsifikatu unibertsitatean erakusten diren gauza askoren aurka doazen gauzak?
5. Susana Junquerak dioenaren aurka, Eliseo Gilek edo Oscar Escribanok **ez zuten inolako interes ekonomikorik** grafiko bereziak agertzeko. Konpontzen ari ziren egitura guztiekin eta agertzen ari ziren pitzar, plater eta horrelako ehunka ontzietako zatiekin urte askotarako lana ziurtatuta zuten. Lurmen kentzeko interesa zuen bakarra EHUko Arkeologia Saila zen, Eliseo Gil kanporatu ondoren, 2.000.000 euro kobratu dutelako denbora erdia sartuta eta langile gutxiagorekin.
6. Azkenik, gogoratu behar da **hizkuntzalariek, arkeologoek, historialariek… egindako 25 txosten daudela,** horietako 2 aldizkari zientifikotan argitaratuta, eta haietan ezeztatu direla grafitoak faltsuak direla dioten 6 txostenetako argudio gehienak. Horretarako froga dokumentaletan, testu zaharretan eta baita geroago egindako aurkikuntza arkeologikoetan oinarrituta dira. Horrez gain, txostenek erakutsi digutenez, **Lurmenek topatutako 400 grafito horiek egiteko euskera arkaikoa, latin arrunta, hizkuntza zelta, kultura punikoa, kristautasuna, mugimendu heretikoak eta beste hainbat kontu jakin behar ziren eta une honetan ez Eliseo Gilek ez Euskal Herriko beste inork ez du gaitasunik horrelako grafito bereziak egiteko.**

Euskeraren Jatorria Elkartea. 2017ko maiatzak 4



**Datatu nahi ez dituzten grafitoetako batzuk**

Karbonato kaltzikoak letrak estaltzen dituen grafitoa. Datagarria.
Behean: Keak estalitako marrazkia. Datagarria kea aztertuta.

Munduko "Azken Afaria" izan daitekeena, egositako buztinezko taulatxo baten gainean eginda. Datagarria termoluminiszentziaren bidez

**El ataque judicial a Iruña-Veleia, y al euskera arcaico y precristianismo que representa, ha llegado a su máximo nivel**

La Asociación Euskeraren Jatorria ante el auto dictado por el Juzgado de Instrucción nº 1 de Gasteiz quiere hacer las siguientes declaraciones:

1. Este Juzgado no tiene ninguna legitimidad en este tema ya que cuando en el 2010 la Sección de Arqueología de la UPV destrozó con una excavadora todo un sector, SOS Iruña-Veleia presentó una querella y la archivaron en una semana **sin estudiar el grave destrozo realizado** donde la UPV metió la pala hasta las mismas losas y destrozó todo lo que había encima (restos de casas…) tal como se puede ver en el video.
2. La juez Susana Junquera Bajo ha tomado dicha decisión **sin datar los grafitos**. Dichas dataciones se pueden hacer en muchas de las ostracas: en los ladrillos o tablillas de barro cocidas con textos se puede hacer una termoluminiscencia que solo vale 3.000 euros, en los dibujos que tienen humo se puede saber dicho humo de qué siglo es, en los grafitos que tienen las letras cubiertas de carbonato cálcico o sedimento se puede saber cuánto tiempo llevan ahí… Pero no ha querido hacer nada de esto. No han querido mandar las piezas a donde mandan la mayoría de los arqueólogos de todo el mundo.
3. Para aseverar que son falsas se han basado en unas **analíticas de las superficies** de las ostracas realizadas por el IPCE-Instituto de Patrimonio Cultural de España. Lo único que ha demostrado este laboratorio del Ministerio de Cultura es que en las superficies hay restos de metales modernos**, no debajo de los carbonatos, humo o sedimento, sino encima.** Es decir, ¡¡el IPCE nos ha demostrado que las ostracas se han limpiado con cepillos modernos!! No que los textos sean modernos. Por supuesto le han prohibido a Eliseo Gil hacer en otro laboratorio ninguna datación.
4. La juez Susana Junquera parece que no sabe que todos los falsificadores del mundo, cuando falsifican algo, **intentan que se parezca a lo que se espera** de ello. ¿Cómo es que se les ha ocurrido falsificar algo que va contra de muchísimas cosas que se enseñan en la universidad?
5. En contra de lo que dice Susana Junquera, Eliseo Gil y Oscar Escribano **no tenían ningún interés económico** en falsificar nada ya que con los trozos de cerámica de platos, jarras… que aparecían y las estructuras que iban reformando tenían trabajo

para muchos años. La que tenia interés era la UPV que después de expulsar a Eliseo lleva cobrando 2.000.000 de euros trabajando la mitad del tiempo y con menos personal.

6. Por último hay que recordar que hay **25 informes de lingüistas, arqueólogos, historiadores, etc**., 2 publicados en revistas científicas, que han demostrado que la mayor parte de los argumentos de los 6 informes profalsedad son inconsistentes, y para ello se han basado en pruebas documentales, textos antiguos y posteriores descubrimientos arqueológicos. Y que para falsificar algo así **haría falta un conocimiento del euskera arcaico, latín vulgar, lengua celta, cultura púnica, cristianismo, movimientos heréticos, etc. que en estos momentos no tiene ninguna persona ni ningún grupo de Euskal Herria, ni Eliseo mucho menos, como para poder hacer los 400 grafitos tan relevantes que se han encontrado.**







## 10.3. World Kafea

Etorritakoen ekarpenak eta iritziak jasotzeko hiru taldeetan jarri eta gai hauek landuko dira. Norberak 15 minutu talde batean eta ondoren beste 15 beste talde batean. Norberak aukeratzen ditu gai biak:

1. taldea: Zer dakit eta Zer jakin nahiko nuke.
2. taldea: Norekin hitz egin beharko genuke, gaia bideratzeko/konpontzeko?
3. taldea: Epaiketari begira, zer egin dezakegu?

## 10.4. Iruña-Veleiaren bertsio ofiziala / La versión oficial de Iruña-Veleia

### a) Iruña-Veleiaren bertsio “ofizialaren” historia (2008-2017)

Iruña-Veleiako grafitoek dagoeneko gauza gehiegi aldatu dituzte: euskeraren egonkortasun maila handiagoa frogatu dute, Mitxelenaren artikuluaren teoria deuseztatu dute, Euskal Herriko latin arrunta ezagutzeko aukera eman digute, euskalduntze berantiarren teoria hankaz gora jarri dute, kristautze prozesua aurreratu dute ia Erromakoaren aldi berera... Gauza gehiegi hemengo establishment unibertsitarioarentzat eta Vatikanoarentzat. Horregatik, grafitoen sekulako altxor hori lurperatzeko asmoz, hemengo kastak orain zortzi urte faltsukeriaren bertsio ofiziala asmatu zuen.

Bertsio ofizialean oinarrituta, Arabako Foru Aldundiak Eliseo Gil eta Lurmen kanporatu zituen eta haien lekuan kanporatzen lagundu ziotenak jarri zituen: EHUko Arkeologia Saila, Euskal Filologia Sailaren laguntzarekin. Sei urte pasatu dira eta erakutsi duten gauza bakarra aldare baten oinarria izan da. Eta harresiko harri baten azpian zegoen beste bat (2 besterik ez guztira).

Horrez gain sektore oso bat hondeamakinaz hondatu zuten antzeko grafitorik ager ez zitezen… Eta orain, abenduan, Nuñezek, Azkaratek eta EHUko Arkeologia Sailaren beste batzuek beste ingurune oso aberatsa suntsitu dute: Errosetoien etxearen albo bat, hainbat grafito, horietako batzuk euskeraz, topatu zituzten lekuaren ondoan. Hormak eta bertako estratigrafia guztiak suntsitu dituzte beste hondeamakina batez. Hori guzti hori Ramiro Gonzalez Diputatu Nagusiaren onarpenarekin eta EHUko Iñaki Goirizelaiaren onespenarekin.

Lurmenek, ordea, 6 urteko epe berean 1.000 zeramika baino gehiago topatu zituen, horietan 400 grafito eta ehunka marrazki zeudelarik, lau ingurune garrantzitsu berreskuratu zituen, 290 zundaketa egin zuen… historia garaikidearen euskeraren altxor handiena topatu zuen.

Faltsukeriaren bertsio ofiziala ez da berdina izan 8 urte hauetan eta adabakiak jartzen joan izan dira denboran zehar, ahalik eta sinesgarritasun gehien emateko. Baina, esaerak dioen moduan, gezurtia herrena baino errazago harrapatzen da:

**Hasierako filtrazioak**. Herritarrak faltsukeriaren alde kokatzeko, izenik gabeko filtrazioak egon ziren prentsan eta interneten. Horietan hizkuntzalaritzaren ikuspuntutik grafitoak faltsuak zirela aipatzen zuten. Hau da, honelako gai arkeologiko batean arkeologoei eta datazioak egiten dituzten arkeometrei hitza eman beharrean hizkuntzalariei eman eta onartzen zitzaien. Mundua alderantziz!

**Descartes eta osagai modernoa.** Geroago, 2008ko azaroaren 19an, ostrakak faltsuak zirela ebatzi zuten gehien bat EHUko Letren Fakultateko irakasleez osatutako Adituen Batzordeak eta Arabako Foru Aldundiak, besteak beste *Descartes* agertzen zelako eta osagai moderno bat aurkitu omen zutelako.

Eliseo Gilek hurrengo egunean bi datu horiek gezurtatu zituen. Batetik *Descartes* ez zela agertzen, *Miscart* baizik eta bi hilabete geroago, argazkiak publiko egin zirenean, arrazoi zuela ikusi genuen.

Bestetik osagai moderno hori apurtutako zeramika zatiak itsasteko kolarena zela erantzun zion Juan Manuel Madariaga EHUko irakasleari. Ez zekien, antza, zeramika zatiak apurtuta agertzen direla indusketatan eta itsatsi egin behar izaten direla. Eliseok argitu zuenean, Madariagak bere txostenetik puntu hori kendu zuen Aldundian ofizialki sartu zuenean.

Hau da, ostrakak eskarmentu handiko arkeometriako laborategietara bidali beharrean, faltsukeria bultzatuko zuen unibertsitateko “lagun” bati eman zioten analitikaren bat egiteko enkargua.

**Txosten grafologikoa.** Geroago, Descartes eta osagai modernoarena pikutara joan zitzaienez, bi egunkarietan filtratutako artikuluen bidez grafitoak faltsuak zirela frogatzen saiatu ziren, txosten grafologiko batek zioelako.

Ros M. Frankek horri erantzuteko egin zuen txostenean eta geroago agertutako beste artikuluetan ikusi zen erabat oinarri gabekoa zela akusazio hori. Gainera, jakina da grafologia paperean egindako idazkunetarako baliagarria izan litekeela baina ez euskarri gogorretan, zeramikak bezalakoetan. Orain Ertzaintzaren arabera, grafologiaren txostenak ez du ezertarako balio. Hau haiek inpartzialak direla erakusteko egin dute, epaileak txosten hori errefusatu egingo zuela bazekitelako. Baina ez dira inpartzialak, ez.

**San Juan komentua.** EHUko Arkeologia Sailak, lana Lurmenek baino hobeto egiten duela lan irudikatzeko, orain dela 3 urte San Juan komentuaren aztarnak aurkitu zituztela baieztatu zigun egunkari guztietan orrialde oso bat betetzen zuten bertsio ofizialaren aldekoen albisteek. Gezurra zen, orain 300 urte jadanik kokapena ezaguna zelako. Tamalez, bertsio ofizialak ondo funtzionatu zuen, hurrengo egunean hori ez zela egia egunkari bakarrak jaso zuelako.

**Instituto del Patrimonio Cultural Españoleko Navarroren txostena.** Orain bi urte bertsio ofiziala indartzeko adabaki berri batekin etorri zitzaizkigun: ostrakak faltsuak zirela erabat baieztatu ziguten osagai moderno gehiago aurkitu zituelako Ertzaintzak gomendatutako Madrileko laborategi bateko ikerle bakar batek: Navarro jaunak. Beti bezala, El Correoko filtrazio batez zabaldu zuten berria.

Gero, txostena ondo irakurrita, ikusi genuen osagai moderno horiek azaletan agertzen zirela, ez idazkien barrunbeetan. Beraz, Navarrok frogatua duena da ostrakak txarrantxa “modernoez” garbitzen direla! Hau aurkikuntza hau!

Gainera, Navarrok lehen Madariagak aurkitu ez zituen osagai batzuk topatu zituen grafitoetan. Hau da, grafitoak manipulazio gehiago jasaten ari omen zirela dirudiela. Hau onartezina da, grafitoak Epaitegian egon beharrean auzi honetako alderdi batek –akusatzailea den Aldundiak- dituelako eta ondorioz, zaintza katea hasieratik apurtuta dagoelako. Edward Harrisek honen berri izan zuenean zera esan zuen: bere herrialdean gai hau hurrengo egunean artxibatuta egongo zen, zaintza katea apurtzeagatik.

**Ertzaintzaren txostena.** Beste filtrazio baten bidez, 2016ko abenduan, El Correok bertsio ofizialaren azken adabakia jakinarazi zigun: Ertzaintzarentzat ostrakak faltsuak dira. Baina, txostena irakurrita, ez digute azaltzen zergatik, nola eta noiz egin ziren eta ez dute froga bat ere eman. Polizi ikerketa lana egin beharrean (froga zientifikoak…), eleberria dirudien txostena egin dute. Eta duten “froga” bakarra orain bi urte haiek gomendatutako Madrileko Instituto del Patrimonio Cultural Españolek egindako zeramiken gainazalen azterketa izan da, Madariagak egin zituen analitiken bigarren bertsioa dirudiena.

**Epaileak datazioak egin gabe instrukzioa itxi du.** 2017ko maiatzean, ia 8 urte pasa ondoren, Susana Junquera epaileak EAEko instrukzio fase luzeena bihurtu den hau amaitutzat eman du. Honelako eztabaida arkeologikoa bat ebazteko hiru aukera daude: datazioak, kata kontrolatuak eta egindako lanen auditoria arkeologikoak. Epaitegiak ez ditu hiru hauetako bat ere erabili nahi izan. Spain is different! Horien ordez, goian aipatu dugun zeramiken gainazaletako analitika huts batzuk egin ditu IPCEk, arkeologia arloan erabat ezezaguna den

eta Espainiako Ministerio de Culturaren menpe dagoen laborategi batean, eta epaileak horiek balekotzat hartu ditu.

Gainazaletako analitika hauetan ez dute zenbait grafitotan idazkunak estaltzen zituzten karbonatu kaltzikoak, kea edo sedimenduak aztertu (datazio prozesuetan egiten dena). Epailek ez ditu Eliseo Gilek eskatutako datazioak egin nahi izan (adreiluak eta hezurrak eta zeramiketako benetako datazioak) ezta berak nahi zituen lekuan (Europako laborategi prestigiotsuetan).



*EHUk egindako suntsiketa, haurlazetaraino!!!*

Gainera Epaileak ez ditu hemengo gauza arraro guztiak ikertu nahi izan: Zergatik EHUko Arkeologia Sailak sektore oso bat eta grafito gehien topatu zen etxearen beheko aldea suntsitu ditu hondeamakinez? Zergatik normaltzat hartzen du EHU 6 urtetan bi grafito baino ez topatzea hor lan egin dutenek beti gehiago topatu dutenean? Zergatik dio Eliseok interes ekonomikoak zituela grafito berezirik agertu gabe ere urte askotarako finantzazioa ziurtatuta zuenean? Zergatik uste du logikoa dela balizko faltsutzaile batek unibertsitatean irakasten diren gauza askoren aurkako gauzak faltutzea normalean kontrakoa denean? Zergatik onar dezaken grafito batean “Descart” irakurketa gehienok “Miscart” irakurtzen dugunean? Zergatik pentsatzen du Eliseok, erdalduna izanik, Lakarrak eta Gorrochateguik baino euskera arkaiko gehiago jakin dezakeela Txillardegik azaldu zigun moduan?

**Hain zuen ere orain, altxor bat dugula dakigunean.** Hain zuzen ere orain, faltsutzat emandako testu gehienak antzeko indusketetako testuen datu baseetan… agertzen direla ikusi dugunean.

Hain zuzen ere orain, Edward Harrisek, arkeologia modernoaren sortzaileak, frogarik gabe arkeologoak horrela inputatzea eta auditoriak eta datazioak egin gabe egotea, munduan beste kasurik ez duela ezagutzen esan digunean.

Hain zuzen ere orain, altxor bat dugula dakigunean Euskera-Veleiako 400 grafito horiei esker euskeraren errekorrak 8 mende aurreratu duelako Hegoaldean: Donemiliagako (San Millan de la Cogolla) XI. mendeko 6  hitzetatik Iruña-Veleiako III., IV. eta V. mendeetako euskerazko 70 hitzetara: senide, pertsona eta leku izenak, adjektiboak, aditzak, *Gure Aitaren* hastapena...

Bitartean, noski, Eliseo Gilek eskatu zituen laborategi ospetsuetan 100 grafitoen datatzeak eta kata kontrolatuak egiteak, 8 urte eta gero, egin gabe jarraitzen dute. Izan ere, datazioak egingo balituzte, ondotxo dakitenez, egiazkoak direla erabat frogatuko litzateke eta euskerari buruzko betiko apunteak aldatu beharko lituzkete eta indusketan duten negozioa galduko lukete: EHUk 7 urte hauetan 2.000.000 euro inguru kobratu du eta harresian “zementuzko” bloke batzuk jarri, horma batzuk konpondu eta aldare baten oina baino ez dizkigute erakutsi!

**Aski da! Itzul dadila zientzia Iruña-Veleiara eta dauden interes ekonomiko, akademiko eta vatikanistek ospa egin dezatela. Izan ere, hemen gezurrezkoa den gauza bakarra… haien bertsio ofiziala da.**

Euskararen Jatorria. 2017.05.13

## b) La versión “oficial” de Iruña-Veleia (2018-2017)

Los grafitos de Iruña-Veleia han cambiado ya demasiadas cosas: han demostrado la mayor estabilidad del euskera, han desmentido la teoría del artículo de Mitxelena, nos han dado a conocer el latín vulgar de Euskal Herria, han puesto patas arriba la teoría de la vasconización tardía, han adelantado la cristianización casi al mismo tiempo que en Roma… demasiadas cosas para el establishment universitario y para el Vaticano. Por eso, con el fin de enterrar el gran tesoro de Iruña-Veleia, la casta de este país creó la versión oficial de la falsedad ya hace 8 largos años.

Basándose en dicha versión oficial, la Diputación Foral de Alava expulsó a Eliseo Gil y a la empresa Lurmen y puso en su lugar a los que le habían ayudado a expulsarle: la Sección de Arqueología con el asesoramiento de Filología Vasca de la UPV. Han pasado 6 años desde que están en el yacimiento y lo único que han debido encontrar es la base de un altar y otro escrito que han encontrado en una piedra de la muralla (tan solo 2 en total).

Además destrozaron con una excavadora todo un sector para que no aparecieran grafitos parecidos. Y ahora, este diciembre, Nuñez, Azkarate y otros del equipo de Arqueología de la UPV han vuelto a destrozar otra riquísima zona: la parte lateral de la casa de los Rosetones donde aparecieron tantos grafitos, algunos en euskera. Han derruido muros y destrozado todas sus estratigrafías con otra excavadora, todo ello con la aprobación del Diputado General Sr. Ramiro Gonzalez y el beneplácito de Iñaki Goirizelaia rector de la UPV.

Por el contrario Lurmen, en el mismo periodo de 6 años, encontró más de 1.000 cerámicas con 400 grafitos y cientos de dibujos, restauró cuatro zonas importantes, realizó 290 sondeos… encontró el mayor tesoro del euskera de la historia contemporánea.

La versión oficial de la falsedad no ha sido la misma durante estos 8 años y han ido poniendo remiendos según pasaba el tiempo con el fin de intentar darle más credibilidad. Pero, como bien dice el refrán, antes se coge al mentiroso que al cojo:

**Las primeras filtraciones.** Con el fin de que la ciudadanía fuese creyendo que eran falsos hubo unas filtraciones anónimas en la prensa y en internet. En ellas se mencionaban que los grafitos eran falsos por razones lingüísticas. Es decir, en un tema arqueológico, en lugar de dar la palabra a los arqueólogos y a los arqueómetras que son los/las técnicos que hacen las dataciones, se otorgaba dicha facultad a los lingüistas ¡El mundo al revés!

**Descartes y el componente moderno.** Más tarde, el 19 de noviembre del 2008, la Comisión Asesora formada en su mayor parte por profesores/as de la Facultad de Letras de la UPV y la Diputación Foral de Alava, determinaron que eran falsas las ostracas porque, entre otras razones, aparecía *Descartes* y contenían un componente moderno.

Eliseo Gil desmintió las dos cosas al día siguiente. No ponía *Descartes* sino *Miscart*. Cuando dos meses más tarde se hicieron públicas las fotos vimos que tenía razón.

Por otra parte, le contestó al profesor de la UPV Juan Manuel Madariaga que el componente moderno era de la cola utilizada para pegar los trozos de cerámica rotos. Por lo visto Madariaga no sabía que la cerámica aparece rota a menudo y que es necesario pegarla. Cuando Eliseo aclaró este tema Madariaga quitó ese punto de su informe antes de entregarlo oficialmente a la Diputación.

Es decir, en lugar de enviar los grafitos a laboratorios de arqueometría con gran experiencia en este tema, le dieron el encargo de hacer alguna analítica que impulsase la falsedad a un “conocido” de la universidad.

**El informe grafológico.** Más tarde, como se les fue a pique lo de Descartes y el componente moderno, a través de unos artículos filtrados a la prensa pretendieron demostrar de nuevo que los grafitos eran falsos porque así lo decía un informe grafológico.

Ros. M. Frank realizó un informe para contestar a dicho argumento, y también ha habido varios artículos posteriores en el mismo sentido que han demostrado que dicha acusación no tiene base alguna. Además es de conocimiento público que la grafología podría valer para soportes en papel pero no en materiales duros como la cerámica. Ahora, según la Ertzaintza, dicho informe grafológico no vale para probar nada. Han manifestado esto para intentar parecer imparciales, cosa que no lo son, porque sabían de antemano que la juez desecharía dicho informe.

**El convento de San Juan.** Para intentar demostrar que la Sección de Arqueología trabaja mejor que Lurmen, hace 3 años dijeron que habían encontrado las ruinas del convento de San Juan, a través de una noticia que ocupaba una página completa en todos los periódicos. Era mentira ya que dicha localización se conocía desde hace 300 años. Por desgracia la versión oficial funcionó bien porque el desmentido solo lo recogió un periódico.

**El informe del Sr. Navarro del Instituto del Patrimonio Cultural Español.** Hace dos años nos vinieron con un nuevo remiendo para apuntalar la versión oficial: un solo investigador, el Sr. Navarro, de un laboratorio de Madrid recomendado por la Ertzaintza, había encontrado componentes modernos en algunos grafitos y por tanto las ostracas eran falsas. Como es habitual, la filtración vino a través del Correo.

Luego, una vez leído el informe, vimos que dichos componentes los había encontrado en las superficies y no en las partes internas de los escritos. Por tanto, lo que había demostrado el Sr. Navarro era que los grafitos se habían limpiado con cepillos modernos ¡Menudo descubrimiento!

Además, Navarro encontró algunos elementos modernos que no aparecían en las analíticas de Madariaga. Es decir, que parecía que habían sido manipulados. Esto es totalmente inaceptable ya que los grafitos en lugar de estar en manos del Juzgado los tiene la parte querellante, es decir la Diputación, con lo que la cadena de custodia se ha roto desde el principio. Como dijo Edward Harris cuando tuvo noticia de esto, en su país este tema se hubiera archivado al día siguiente por haberse roto la cadena de custodia.

**El informe de la Ertzaintza.** A través de otra filtración en diciembre del 2016, El Correo nos informó del último remiendo que le han dado a la versión oficial: para la Ertzaintza las ostracas son falsas. Pero, una vez leído el informe, vemos que no nos demuestran por qué, cómo y cuándo lo hicieron y no aportan ninguna prueba. En lugar de realizar un trabajo de investigación policial (logrando pruebas científicas…) han realizado un informe que parece una novela. Y lo único que presentan como prueba es el estudio de las superficies de las cerámicas de hace dos años del Instituto del Patrimonio Cultural Español de Madrid recomendado por ellos, un estudio que parece la segunda versión de las analíticas de Madariaga.

**La Juez cierra la fase de instrucción sin hacer las dataciones.** En Mayo del 2017, después de casi 8 años, la juez Susana Junquera ha cerrado la fase de la instrucción más larga de la CAV. Hay tres métodos para resolver este tipo de temas arqueológicos: las dataciones, las catas controladas y las auditorías arqueológicas de los trabajos realizados. El juzgado no ha querido utilizar ninguna de éstas. Spain is different! En su lugar han hecho solamente una analítica de superficie del IPCE comentado anteriormente y la Juez lo ha dado por válido sin más.

En estas analíticas de superficies no han estudiado, como hemos dicho, cuánto tiempo lleva el carbonato cálcico, el humo o los sedimentos encima de los surcos de las letras (que es lo que se hace en los procesos de datación). La Juez no ha querido hacer las dataciones solicitadas por Eliseo Gil (en ladrillos, huesos y verdaderas dataciones de cerámicas) ni tampoco en los laboratorios solicitados (en prestigiosos laboratorios europeos).



*Grafitos que la Juez no ha querido datar: con carbonato, humo o realizadas en tablillas cocidas*

Además la Juez no ha querido investigar todas las cosas raras que están pasando aquí: ¿Por qué la sección de Arqueología de la UPV ha destrozado con la excavadora un sector y la base de la casa donde aparecieron más grafitos? ¿Por qué le parece normal que en 6 años la UPV solo haya encontrado 2 grafitos cuando todos los arqueólogos que han trabajo ahí han encontrado más? ¿Por qué da por validad la tesis de que Eliseo tenía intereses económicos cuando tenía la financiación asegurada para muchos años sin que apareciera ningún grafito especial?

¿Por qué da por normal que un presunto falsificador quiera falsificar algo que va en contra de muchas cosas que se enseñan en la universidad cuando suele ser siempre lo contrario? ¿Por qué da por válido que pone textos como “Descart” cuando la mayoría leemos “Miscart”? ¿Por qué cree que Eliseo, no sabiendo euskera, puede conocer el euskera arcaico mejor que Lakarra y Gorrochategui tal como nos lo explicó Txillardegi?

**Precisamente ahora que sabemos que tenemos un tesoro.** Precisamente ahora, cuando hemos visto que la mayor parte de los grafitos dados por falsos aparecen en diferentes bases de datos de yacimientos parecidos.

Precisamente ahora, cuando el creador de la arqueología moderna, Edward Harris, dice que no conoce en todo el mundo un caso parecido donde se imputen a los arqueólogos semejantes acusaciones sin hacer auditorias ni dataciones.

Precisamente ahora que sabemos que tenemos un gran tesoro ya que los 400 grafitos de Euskera-Veleia, entre otras muchísimas cosas, han adelantado la presencia del euskera nada menos que 8 siglos en Hegoalde, de las 6 palabras de San Millán de la Cogolla del siglo XI a las 70 palabras de los siglos III, IV y V que aparecen en Iruña-Veleia: nombres de familiares, personas y topónimos, adjetivos, verbos, el inicio del Padre Nuestro…

Mientras tanto, la petición que hizo Eliseo Gil hace 8 años de datar 100 grafitos en prestigiosos laboratorios de arqueometría y hacer unas catas controladas siguen sin hacerse, porque saben que si se hiciesen, se probaría inequívocamente la veracidad de los grafitos y tendrían que cambiar sus apuntes de toda la vida sobre el euskera, o perderían su negocio en el yacimiento: la UPV ha cobrado unos 2.000.000 de euros estos 7 años por poner bloques de “cemento” en la muralla, arreglar algunas pareces y solo nos han enseñado la base de un altar y una frase en una piedra de la muralla..

**¡Basta ya! Que la ciencia vuelva a Iruña-Veleia y que desaparezcan los intereses económicos, académicos y vaticanistas porque lo único falso que hay en todo esto no es más que…. su versión oficial.**

Euskararen Jatorria. 2017.05.13